

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2172

IRAGARKIA, 2024ko apirilaren 22koa, Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezka-riarena, zeinaren bidez jakinarazten baita hainbat enpresaren Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Erregistroko inskripzioak ezeztatzeko prozedura hasteko erabakia.

Saiakerak egin arren, ezin izan zaie jakinarazi Lan eta Gizarte Segurantzako Gipuzkoako lurralde-ordezka-riaren 2024ko martxoaren 21eko erabaki hori eranskinean zerrendatzen diren enpresei.

Horregatik, iragarki hau argitaratzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Erabaki horren bidez enpresa horietako Amiantoaren Arriskupeko Enpresen Gipuzkoako Erre-gistroko inskripzioa ezeztatzeko prozedura hasten da, ez baitute plantillan langilerik 396/2006 Errege Dekretuaren II. kapituluan ezarritakoa betetzen duenik.

Eta enpresa horiei jakinarazten zaie egoki iritzitako alegazioak egin ditzaketela eta adierazitako betebeharrak bete dituztela egiazta dezaketela, hamar egun balioduneko epean, iragarkia argita-ratu eta biharamunetik aurrera.

Zerrendan aipatutako interesdunak jakitun jartzeko ematen da aditzera hau, eta jakinarazpena-ren balioa izango du haientzat.

Jakinazpen honek ondorioak izango ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastian, 2024ko apirilaren 22a.

Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaria,
VICTOR RICARDO MONREAL DE LA IGLESIA.

2024ko maiatzaren 8a, asteazkena

ERANSKINA

NAN/IFZ/AIZ/Pasaportea	Enpresa	Erreferentzia
E20495560	Domaral, C.B.	RERA 20-00043
E20818852	Aitor Gómez López y otro, C.B.	RERA 20-00045
E20966818	Lain Blanco Goikoetxea y otro, C.B.	RERA 20-00078